

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Azpeitiko HAPoren AU 31 «Trukutxo» Plan Partzialaren hasierako onespena.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko ekainaren 4an egindako bilkuran, hasiera batean onartu du Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AU 31 «Trukutxo» hirigintza-eremurako Plan Partziala, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentua oinarri hartuta egindako Ingurumen Azterketa Estrategikoa barne hartzen duena.

Plan Partzialaren helburua antolamendu xehatuaren araubidea zehaztea da, Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritakoa betez. Plan horrek eremuko lursailak lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatzen ditu, eta batez ere industria-erabilerarako erabiliko dira.

Eremuaren azalera 259.786 m<sup>2</sup>-koa da, eta udalerriko hirigune nagusiaren iparraldean dago, Lasao auzoan, Anardi eta Badiolegi artean.

Hierros Servando SL enpresak sustatu du Plan Partziala, eta Santiago Peñalba Garmendia arkitektoaren zuzendaritza teknikoarekin idatzi da.

Ondorioz, eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31. artikularekin bat etorriz (lurralde-antolamenduko planak eta lurralde-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen ditu dekretu horrek), Plan Partzialaren dagokion dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko dira berrogeita bost egun balioduneko epean (45), iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, egokitzen jotzen diren alegazioak aztertu eta jendaurrean jarri ahal izateko. Alegazioak udal honetako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Plaza Nagusia, 5, 1. solairua) aurkeztu beharko dira, udaleko alkate-udalburuari zuzenduta. Era berean, elektronikoki aurkeztu ahal izango dira, udalaren egoitza elektronikokoaren bidez edo Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako beste moduren batean.

Aldi berean, eragindako administrazio sektorialeiei eta alde zuzeneko pertsona interesdunei kontsultak egingo zaizkie.

Dokumentuak, hasierako onespeneren eabazpenarekin batera, Azpeitiko Udalaren web orriko iragarki-taulan egongo dira ikusgai ([www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus)), eta irismen-dokumentua eta espedientearen izapidetza osatzen duten gainerako eabazpenak web orriko Hirigintza eta Ingurumen Sailaren atalean argitaratuta daude, garapen-plangintzaren atalean, «Trukutxo 31 hirigintza-eremurako Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren onarpenera» izenarekin.

Plan Partzialaren mugaketan mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak ematea etenda geratzen da, baldin eta aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etete hori urtebeteko epean mantenduko da, eta, hala badagokio, Plana behin betiko onartu arte, adierazitako epea baino lehen egiten bada.

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Aprobación inicial del Plan Parcial AU 31 «Trukutxo» del PGOU de Azpeitia.*

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 4 de junio de 2024 se ha aprobado con carácter inicial el Plan Parcial para el ámbito urbanístico AU 31 «Trukutxo» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia, que integra a su vez el Estudio Ambiental Estratégico elaborado a partir del documento de alcance emitido por el órgano ambiental del Gobierno Vasco.

El objetivo del Plan Parcial es la determinación del régimen de ordenación pormenorizada en cumplimiento de lo establecido en el Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia que clasifica los terrenos del ámbito como suelo urbanizable sectorizado y los destina preferentemente a uso industrial.

La superficie del ámbito es de 259.786 m<sup>2</sup> y esta situada al norte del área urbana central del municipio, en el barrio de Lasao, entre Anardi y Badiolegi.

El Plan Parcial ha sido promovido por Hierros Servando S.L. y redactado bajo la dirección técnica del arquitecto Santiago Peñalba Garmendia.

En consecuencia, y de conformidad con el artículo 31 del Decreto 46/2020 de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación territorial, el correspondiente documento del Plan Parcial acompañado del estudio ambiental estratégico se exponen al público en la Secretaría de este Ayuntamiento durante el plazo de cuarenta y cinco días hábiles (45), a partir del día siguiente hábil al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan ser examinados y presentarse durante este periodo de información pública, las alegaciones que se estimen procedentes, que deberán ser presentados en Servicio de Atención Ciudadana de este Ayuntamiento (Plaza Nagusia, 5, 1.º piso), dirigidas a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento. De igual forma, podrán presentarse electrónicamente a través de la sede electrónica del Ayuntamiento o en otra forma establecida la Ley de Procedimiento Administrativo Común.

Paralelamente procederá el trámite de consultas a las administraciones sectoriales afectadas y a las personas interesadas previamente consultadas.

Los documentos junto con la Resolución de aprobación inicial estará expuesto en el Tablón de Anuncios de la página web del Ayuntamiento de Azpeitia [www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus), y el documento de alcance junto con las demás resoluciones que integran la tramitación del expediente están publicados en el apartado del departamento de Urbanismo y Medioambiente de la página web, dentro de la sección del planeamiento de desarrollo con el nombre de «Aprobación del Plan Parcial de Ordenación Urbana para el ámbito urbanístico 31 Trukutxo».

Queda suspendido el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en la delimitación del Plan Parcial en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente. Esta suspensión se mantendrá en el plazo de un año y en su caso hasta la aprobación definitiva del Plan si precede al plazo señalado.

Erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, izapide-egintza bat delako.

Azpeitia, 2024ko ekainaren 5a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (4248)

Contra el presente acuerdo no cabe interponer recurso alguno por tratarse de un acto de trámite.

Azpeitia, a 5 de junio de 2024.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (4248)